

Bikaintasuna Euskal Ikasketetan IX. Euskara eta euskal kultura eremu digitalean



Uzt. 10 - Uzt. 11 2019

Kod. K02-19

Mod.:

Aurrez aurrekoa

Edizioa

2019

Jarduera mota

Eskola

Data

Uzt. 10 - Uzt. 11 2019

Kokalekua

Miramar Jauregia

Hizkuntzak

Euskara

Balio akademikoa

20 ordu

Antolakuntza Batzordea

Azalpena

Euskara eta euskal kultura nazioartean sustatu eta hedatzea du helburu Etxepare Euskal Institutuak. Gaur egun, 35 irakurletza ditu Euskal Herritik kanpoko unibertsitateetan, eta horietan euskara eta euskal kulturako 30 irakasle ditu. Horiez gain, 8 katedra ere sortu ditu, beste horrenbeste unibertsitateetan. Ikastaro honek egungo irakurleen eta etorkizuneko formazioa sendotu nahi du, eta horretarako, euskararen eta euskal kulturaren jakintza arlo desberdinetako adituak gonbidatu ditu, aurreko urteetako bide beretik. Hortik "Bikaintasuna Euskal Ikasketetan IX" izenburua.

Aurtengoan eremu digitala izango dugu hizpide eta bizi dugun garai honetan teknologiak eta eremu digitalak euskararen eta euskal kulturaren irakaskuntzari egin diezaioketen ekarpena aztertuko dugu.

Helburuak

Humanitate digitalen eremura hurbiltzea.

Euskararekin eta euskal kulturarekin zerikusia duen eremu digitala ezagutzea.

Eremu digitalak euskararen eta euskal kulturaren irakaskuntzari egin diezaioketen ekarpena aztertzea.

Baliabide digitalen berri ematea nazioartean euskara eta euskal kultura irakasten ari diren edo horretan jardungo duten irakasleei.

Etxepare Euskal Institutuko irakurletza sareko irakurleen jardunaren berri ematea eta esperientziak partekatzea.

Ikastaroaren laguntzaile espezifikoak



Programa

2019-07-10

09:00 - 09:15 Dokumentazio banaketa

09:15 - 10:30 “Digital tools for real-life foreign language teaching and learning”

Detmar Meurers - Tübingeneko Unibertsitatea - Irakaslea

10:30 - 10:45 Atsedena

10:45 - 12:00 “Kultura digitalizatua: Europa eta Euskal Herria”

Itziar Gonzalez Dios EHU/UPV - Irakaslea

Izaskun Etxebarria Uztarroz EHU/UPV - Irakaslea

12:00 - 12:15 Atsedena

12:15 - 13:30 “Euskararen irakaskuntza eta IKTak “

Mikel iruskieta EHU/UPV - Irakaslea

Abel Camacho Romero Santurtziko Udal Euskaltegia

16:00 - 17:15 “Euskal artea garai digitalean “

Arantza Lauzirika Morea UPV/EHU - Dekanoa

17:15 - 18:00 “Irakurlearen jarduna eta sare sozialak”

Ane Castelruiz Garcia - - Irakaslea

2019-07-11

09:15 - 10:30 “Euskal literatura teknologia berrien begietatik”

Iratxe Esparza Martin EHUKo Literatura Saila - Irakaslea

10:30 - 10:45 Atsedena

10:45 - 11:45 “Euskara irakasten Santa Barbaran: online ikastaroa “

Iker Arranz Otaegui Santa Barbarako Unibertsitatea - Irakaslea

11:45 - 12:15 Atsedena

12:15 - 13:30 “Wikipedia euskal kultura irakasteko tresna gisa”

Iñaki Lopez de Luzuriaga Martinez Euskal Wikilarien Kultura Elkarte

Amaia Orbe Barrio Berlingo Freie Unibertsitatea, Etxepare Euskal Institutua

16:00 - 16:30 What is bertsolaritza? izeneko ikus-entzunezkoa.

16:30 - 17:30

“What is Bertsolaritza? ikus-entzunezkoa kultura eskoletarako baliabide gisa“

Miren Ibarluzea Santisteban EHU/UPV - Irakaslea

Xabier Payá Ruíz Kultur kudeatzailea

17:30 - 18:00

Sintesia

Zuzendaritza



Garbiñe Iztueta Goizueta

Etxepare Euskal Institutoa

Garbiñe Iztueta Aleman Filologian eta Ingeles Filologian lizentziatua da, eta Filologia Modernoan doktorea, literatura konparatuan. 2017az geroztik Euskara Sustatu eta Hedatzeko zuzendaria da Etxepare Euskal Institutuan. Aurretik Euskal Herriko Unibertsitatean egin du ibilbide luzea, Ingeles eta Aleman Filologia eta Itzulpen-gintza saileko irakasle gisa (1998-2017), baita Aleman Filologiako koordinatzaile (2014-2017) eta Letren Fakultateko Nazioarteko Harremanetarako eta Mugikortasun Programetarako dekanorde (2007-2011) moduan ere. Honako gaiak izan ditu hizpide eta aztergai bere proiektu eta argitalpenetan: Alemania eta Euskal Herriaren arteko kulturartekotasuna, Euskal Herriaren irudia alemanezko bidaia-deskribapenetan, espazioa, emozioa eta aberria alemaniar literaturan, botere espazioak Herta Müller idazlearen prosan eta identitatea Alemaniar Batasunaren ondorengo literaturan.

Irakasleak



Iker Arranz Otaegui

Filosofia eta Hezkuntza eta Filosofiaren inguruko bi master ikasi zituen EHU, eta Nevadako Unibertsitatean, Renon, egin zuen doktoretza, honako gaiaren inguruan: “Violence Between Equals: An Investigation on the Ontological Concept of Change”. Irakasle laguntzaile aritu zen aipatutako unibertsitate horretako Center for Basque Studies-en lau urtez eta 2014az geroztik Kaliforniako Unibertsitatean irakurle gisa aritu da. Bertan landu du, hain zuzen ere, aurkeztuko duen ikastaroa. Hainbat artikulu eta liburu idatzi ditu, gehienetan euskal gaien inguruan, arreta berezia eskainiz euskal literaturari eta Food Studies deiturikoari.



Abel Camacho Romero

Abel Camacho Euskal Filologian lizentziatua da eta urte luzez euskara-irakasle ibilia. Egun Santurtziko Udalean prestakuntza-teknikaria da. Euskara ikasteko hainbat materialen idazlea, irakasleen prestatzailea eta Moodle-ren euskarazko itzulpenaren arduraduna eta kode irekiko beste hainbat aplikazioren itzultzailea. e-learning aholkularia.



Ane Castelruiz Garcia

Colegio San Patricio

Bere ibilbideak bi ardatz ditu: komunikazioa eta hezkuntza. 2012az geroztik Ikus-entzunezko komunikazioan lizentziaduna, komunikazio lanetan ibili da lau urtez Etxepare Euskal Institutuan. Enpresa eta erakundeen komunikazio zuzendaritza Masterra egin zuen 2016an eta sare sozialen kudeaketa lanetan aritutakoa da beste hainbat erakundetan ere, esaterako Donostiako Zinemaldian. Hezkuntza arlor lotuta egon da gaztetatik eta 2014an Irakasleen prestakuntza Masterra egin zuen. Egun, ikus-entzunezkoak, euskara eta gaztelania irakasten ditu bigarren hezkuntzan.



Iratxe Esparza Martin

UPV/EHU, Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika

Iratxe Esparza Martin (Santurtzi, 1972) Euskal Filologian Lizentziatua da eta Euskal Herriko Unibertsitatean Literatura Konparatua eta Literatur Ikasketetan doktorea. La Platako Unibertsitatean egonaldi bat burutu ostean, bere doktorego tesia aurkezten du identitatearen eraldaketa eta XXI. mendeko euskal narratibako subjektu postmodernoaren agerpen ezberdinak aztertuz. Literaturaren soziologiaren eta literatur kritika feministaren ikuspuntutik, euskal literaturaren hainbat alderdiri buruzko lanak aldizkari zein liburuetarako idazteaz gain, ikertzailearen ibilbidea zenbait ikastaro eta kongresutara parte hartzearekin osatzen du. Gaur egun, prentsan kritikari literario bezala dihardu eta Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea da, Bilboko Hezkuntza Fakultatean Literaturaren eta Hizkuntzaren Didaktika Sailean.



Izaskun Etxeberria Uztarroz

UPV/EHU


Izaskun Etxeberria Informatikan lizentziatua (1992) eta doktorea (2016) da. UPV/EHUko irakaslea da 1993tik, Konputagailuen Arkitektura eta Teknologia sailean (Informatika Fakultatean), eta IXA taldeko ikertzailea 2008tik. Hizkuntzaren Azterketa eta Prozesamendua master ofiziala (UPV/EHU) bukatuta (2010), IXA taldearen gidaritzapean garatu zuen doktore-tesia: "Aldaera linguistikoen normalizazioa inferentzia fonologikoa eta morfologikoa erabiliz". Ordutik, testu ez estandarren prozesaketa du bere ikerketa-gai nagusia, askotariko arrazoiengatik gero eta ugariagoak baitira prozesatu nahi diren horrelako testuak.



Itziar Gonzalez Dios

Itziar Gonzalez-Dios Aleman Filologian lizentziatua (2010) da, Hizkuntzaren Azterketa eta Prozesamendua masterra (2011) du eta Hizkuntzalaritza Konputazionalan egin zuen doktoretza (2016). Ixa taldeko ikertzailea da 2010etik eta Euskal Hizkuntza eta Komunikazioa Saileko irakaslea 2016tik.

Bere ikerketa-lerro nagusiak testuen konplexutasunaren azterketa, sinplifikazio automatikoa, lexikografia, semantika eta terminologia konputazionala dira. Azken urteetan, arrazonamendu automatikoan (adimen artifiziala) ere ari da.



Miren Ibarluzea Santisteban

UPV/EHU, irakaslea

Itzulpengintzan, argialetxeetan eta eskolarako materialgintzan aritu ondoren, EHUko Euskal Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Sailean eskuratu zuen nazioarteko doktoretza 2017an (2018/19 ikasturteko doktorego sari berezia eta Koldo Mitxelena VI Saria jaso zituen). UPV/EHUk eta University of Groningen-ek eskainitako European Master in Multilingual Education masterra egina du (2020). Itzulpen Ikasketak eta Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika ditu ikergai nagusi: euskal itzulpengintzaren historia eta kritika, itzulpengintzaren soziologia, itzulpenaren errepresentazioak, itzulpen-ohiturak, eleaniztasuna eta hizkuntzen trataera bateratua. Euskara eta Euskal Kulturako irakasle jardun zuen 2011-2015 bitartean Frantzia, Michel de Montaigne-Bordeaux 3 eta Sorbonne Nouvelle-Paris 3 unibertsitateetan. 2016/2017 ikasturteaz geroztik UPV/EHUko Bilboko Hezkuntza Fakultatean dihardu, Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika Sailean, eta MHLI ikerketa-taldeko kidea da (MHLI: www.mhli.net).



Mikel iruskieta

UPV/EHU, Irakasle Atxikia

Mikel Iruskieta HEZikt Berezko Tituluko (UPV/EHU) zuzendaria da. Euskal Filologian (2001) eta Filosofian (2007) lizentziatua eta doktorea 2014an Euskal Filologian. Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika Saileko irakaslea 2008tik eta Hizkuntzaren Análisis eta prozesamendua (UPV/EHU) master ofizialeko irakaslea. Halaber, IXA Taldeko ikertzailea eta CLARIN-ERIC-eko kidea. IXA-CLARIN-K Humanitate Digitalen ikerkuntzarako hizkuntza teknologia garatzeko ikerketa-azpiegitura koordinatzen du.



Arantza Lauzirika Morea

UPV/EHU

Artista, arte eta ikus-entzuketan doktorea eta UPV/EHUko Arte Ederren Fakultateko Arte eta Teknologia saileko irakasle titularra, ikertzailea eta 2014tik Fakultateko Dekanoa da. Akme (Artea, Kultura, Media) jardunaldietako ko-zuzendaria, esku-hartzeak Deustuko Zubian proiektuaren zuzendaria, eta Akmea Ikerketa taldearen zuzendaria. Ikerketa proiektu ezberdinetan parte hartu du, ikerketa testu eta artikulatuak idatzi ditu eta hainbat liburuen editore izan da. Bere arte lanak (bideo eta instalazio proiektuak) Europako erakusketa ezberdinetan ikusgai egon dira.



Iñaki Lopez de Luzuriaga Martinez

EWKE

Iñaki Lopez de Luzuriaga wikilaria da, Euskal Wikilarien Kultur Elkarteko kide aktiboa hura sortu zenetik. EN eta EU Wikipediatako edukien editorea 2008tik. Hezkuntza Programari lotuta, material pedagogikoko hainbat itzulpenen egilea, eta Wikipedia tailerretako hezitzailea unibertsitateetan 2018ko udaberrian. Londresko Euskal Elkartean eta Kaliforniako Stanford Unibertsitatean euskara irakasle hiru urtez aritua. Egun, itzultzailea lanbidez. Euskal Wikilarien Kultur Elkartea 2016an sortu zen. Elkartearen helburua da Euskarazko Wikipedia eta haren inguruan dauden Wikimedia Fundazioak babestutako proiektuak garatzea. Jakintza eta eduki libreak maite dituzte eta hainbat ekimen ari dira gauzatzen eragile eta herritar ugarirekin. Hezkuntzaren ingurukoa da ekimen horien ildo nagusietako bat.



Detmar Meurers -

Hizkuntzalaritza konputazionalerako irakaslea da Tübingen-eko Unibertsitatean, Alemanian, baita LEAD Graduate School and Research Network programako zuzendaritzako kide ere. Aurrez Hizkuntzalaritza Saileko irakasle elkartu izan zen Ohioko Estatu Unibertsitatean. ICALL-Research.com taldeko buru gisa bi dira bere lan-esparruak: ICALL deiturikoa, alegia, Intelligent Computer-Assisted Language Learning, eta hizkuntzalaritza konputazionalerako metodoak bigarren hizkuntzen jabeakuntzan eta hizkuntzen irakaskuntzan. Lan ugari argitaratu ditu honako gaien inguruan: hizkuntzen sistema tutore adimenduna, erantzun laburren ebaluazio automatikoa, Learner corpora-ren analisi automatikoa eta inputa aberasteko eta hobetzeko hizkuntza ikasleentzako aplikazioak. Orain gutxi "Language Learning" aldizkariko ale berezi bateko editoreetako bat izan da eta "Language and Computers" liburuaren egileetako bat ere bada, aditu ez direnak gogoan idatzitakoa.



Amaia Orbe Barrio

Amaia Orbe Barrio 2017ko urritik euskara eta euskal kultura irakurle aritu da lanean Berlingo Freie Unibertsitatean. 2016an Itzulpengintza eta Interpretazio ikasketak amaitu zituen Gasteizen eta ostean Irakaskuntzako Irakasleen Prestakuntza Masterra egin zuen, Hizkuntza eta Literaturako espezialitatearen baitan. Irakurletza urteetan zehar, hizkuntza eta kultura eskolez gain, Euskara Berlineko beste hizkuntzekin saretzeko proiektu eta ekimenen antolakuntzan murgildu da batez ere, Berlineko Gernika Euskal Etxearen eta Etxepare Institutuaren babes eta laguntzarekin batera, besteak beste, Mintzalaguna, Berlineko hizkuntza txikien foroa eta Euskara eta Kurduera hizkuntzen gaubela antolatu dira Alemaniako hiriburuan.



Xabier Payá Ruíz

(Bilbo, 1982) Itzulpengintzan eta interpretazioan lizentziaduna. Hiru master ditu honako arloetan: Komunikazio multimedia, Europako Kultura Modernoak, eta Enpresa Zuzendaritza eta Administrazioa. Ingelesetik, frantsesetik eta gaztelaniatik euskaratu ditu hainbat lan: Desio izeneko tranbia, Peter Pan eta jaka eskarlata, Maite nuen, Herria, Bizitza amets... Artikulugintzan urte ugari jardundakoa da, bai irratan, bai prentsa idatzian: Euskadi Irratian, Bizkaie.biz agerkari digitalean, Gaur8-n eta Berria-n

Matrikula prezioak

MATRIKULA	2019-04-01 ARTE	2019-05-31 ARTE	2019-07-10 ARTE
GONBIDAPENA	0 EUR	-	-
OROKORRA	-	60,00 EUR	70,00 EUR
MATRIKULA MURRIZTUA	-	35,00 EUR	-
MATRIKULA EXENTZIOA	-	20,00 EUR	20,00 EUR
AEK euskaltegiko kide	-	52,50 EUR	-
ELKAR txarteldunak	-	52,50 EUR	-
IKA Euskaltegiak	-	52,50 EUR	-

Kokalekua

Miramar Jauregia

Mirakontxa pasealekua 48, 20007 Donostia

Gipuzkoa